Errenteriako Udala
Zk./ Nº 2023/20
Data / Fecha 2023/11/28
AKTA / ACTA

ERRENTERIA
UDALA
Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2023IGOB0020
**Gaia/**Asunto**:** 2023/11/28 Tokiko Gobenu Batzarraren ezohiko bilkura/Sesión extraordinaria de Junta de Gobierno Local 28/11/2023

**Tokiko Gobernu Batzarra 2023ko azaroaren 28an eginiko ezohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2023ko azaroaren 28ko 09:33ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), ondoko zinegotziak elkartu dira:

***ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU***

- Alazne Korta Zulaika

- Bernar Lemos Taberna

- Eñaut Gracia Ibarra

***ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde***

- Maite Gartzia Ontiveros

- Yolanda Martín Marcos

Bertan dago, egintza fedatzeko, Begoña Bueno Barranco Idazkari akzidentala.

**1. 2023-2027 Agintaldi Planaren onarpena. (2023ZBAR0009)**

Errenteria 2025 Plan Estrategikoan jasotakotik abiatuta eta gobernu taldeak agintaldi honetarako dituen helburu estrategikoak aintzat hartuta 2023-2027 Agintaldi Plana prestatu da. Tresna honen bitartez gobernu-taldeak agintaldiko lau urteetarako bere ekintza politikoa antolatu du, xede izanik

**Acta de la sesión extraordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 28 de noviembre de 2023.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:33 horas del día 28 de noviembre de 2023, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), las siguientes concejalas y concejales:

***ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU***

- Alazne Korta Zulaika

- Bernar Lemos Taberna

- Eñaut Gracia Ibarra

***ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde***

- Maite Gartzia Ontiveros

- Yolanda Martín Marcos

Asiste y da fe del Acto Secretaria Acctl. Begoña Bueno Barranco.

**1. Aprobación del Plan de Mandato 2023-2027. (2023ZBAR0009)**

Resultando que partiendo del Plan Estratégico Errenteria 2025 y los objetivos estratégicos del equipo de gobierno para el presente mandato se ha elaborado el Plan de Mandato 2023-2027 como instrumento mediante el cual el equipo de gobierno ha planificado su acción política para estos cuatro

ESKU95ed86f6-1a16-498f-8181-287a08eeff33

herritarrek nahiz erakundeak bat egitea helburu orokorrarekin. Sail eta departamentu desberdinetako arduradun tekniko desberdinekin batera osatu den dokumentua da.

años de mandato, con el objetivo de identificar y compartir sus objetivos tanto con la ciudadanía como con la organización. Se trata de un documento que se ha elaborado junto con el personal técnico responsable de las diferentes áreas y departamentos municipales.

Gure erakundeak urte batzuk daramatza udal administrazioaren bisio zehatz baten gainean lanean, hain zuzen ere, herritarra ardatz hartuta udal antolaketa eta kudeaketa kalitatezko zerbitzu publikoetara bideratzen doan udal administrazioarena, etengabeko hobekuntza baten esparruan. Baieztatzen dugu administrazio publiko eredu berri baten inguruan sakontzearen beharra, garai eta egoera berriei aurre egiteko gai izango dena. Eta hori gauzatzeko ahaleginean ari gara.

Nuestra organización lleva unos años trabajando con una visión sobre la administración municipal, en la que tomando a la ciudadanía como eje, va encaminando la organización y gestión municipal hacia servicios públicos de calidad, en el marco de una mejora continua. Nos reafirmamos en la necesidad de profundizar en el nuevo modelo de administración pública que estamos intentando implementar de manera que sea capaz de hacer frente a nuevos tiempos y situaciones.

Azken urte hauetan neurriak hartzen ari gara Errenteriako Udala administrazio publiko eraginkor batean bilakatu ahal izateko, herritarren beharrak asetzeko gai izango dena, gardentasuna, hurbiltasuna eta eraginkortasuna oinarri.

Estos últimos años venimos adoptando medidas para convertir el Ayuntamiento de Errenteria en una administración eficaz, capaz de satisfacer las necesidades de la ciudadanía, tomando como base la transparencia, la cercanía y la eficacia.

Helburu hori lortzeko 2015-2019 agintaldian prozesu bat jarri zen abian, eta lehenengo pausoa arduradun politiko eta teknikoez osatutako zuzendaritza talde bat sortzea izan zen, beste hiru Koordinazio talderekin batera. Hauen xedea udal kudeaketari dagokion jarduera guztia zuzendu eta koordinatzea izanik. Aldi berean, udalaren jarduera guztia hiru arloetan integratzea erabaki zen, Antolaketa, Lurraldea eta Herritarren arloetan, ordurarte udalean zeuden sail eta departamentuak hiru arlo horietan integratuz koordinazio ondorioetarako, arlo bakoitzari Koordinazio talde bat egokituz. Aurrekoarekin bat eginez udaleko batzorde informatiboen egitura sinplifikatu zen, hiru iraunkorretara gutxituz, eta koordinazio arlo bakoitzari batzorde informatibo bat egokituz. Egitura hau aurreko eta oraingo agintaldian mantendu da.

Para dicho fin, en el mandato 2015-2019 se puso en marcha un proceso en el que el primer paso fue formar un grupo de dirección formado por personal político y técnico, junto con otros tres grupos de coordinación. Su objetivo era dirigir y coordinar toda la actividad relativa a la gestión municipal. Asimismo, se decidió integrar toda la actividad municipal en tres ámbitos (Organización, Territorio y Ciudadanía), integrando a su vez las áreas y departamentos del Ayuntamiento en esos tres ámbitos en lo que a la coordinación se refiere y se estableció un grupo de coordinación para cada ámbito. Unido a todo ello, se simplificó la estructura de las comisiones informativas, pasando a crear tres comisiones informativas permanentes, y asignando a cada ámbito de coordinación una comisión informativa. Toda esta estructura se ha mantenido en el anterior y en el presente mandato.

ESKU95ed86f6-1a16-498f-8181-287a08eeff33

Udalaren kudeaketan, oro har, gorabeherak, arazoak eta larrialdiak gertatzen dira etengabe. Herritarren hurbiltasunak eragiten du hurbil izatea baita ere galdetzeko beraien gai zehatzen berri. Gutxieneko batzuk antolatzen ez badira, egunerokotasunak markatzen du antolamenduaren norabidea, tokiko gobernu baten ezaugarri diren helburu politikoak alde batera utzita.

Considerando que la gestión municipal en general vive inmersa en un devenir contínuo de incidencias, problemas y urgencias. La cercanía a la ciudadanía conlleva que también la tengamos cerca para preguntar por sus asuntos concretos. Sin una mínima planificación el día a día acaba siendo quien marca el rumbo de la organización, arrinconando los objetivos políticos que caracterizan a un gobierno local.

Bestalde, ekintza orientatzen duten helbururik gabe, Udalaren antolamendua sakabanatu egiten da eta departamentalizaziora eramaten duten dinamikak indartzen dira, independenteki jarduten diren antolamenduetara, horrela eraginkortasuna murriztu eta herritarren beharrei era integralean erantzuteko gaitasuna mugatuta.

Por otra parte, sin unos objetivos que orienten la acción, la organización municipal se dispersa y se fortalecen las dinámicas que llevan a la departamentalización, a silos organizativos que actúan de manera independiente, en vez de fomentar la transversalidad, disminuyendo la eficiencia y limitando la capacidad de responder integralmente a las necesidades de la ciudadanía.

Aurreko guztiarekin bat eginez helburuak lortzea xede duen plangintza garatu eta aurreratzea eta urteko  Kudeaketa Planean eta udal-aurrekontuan islatzea egokia ikusten da.

En concordancia con lo expuesto resulta idóneo desarrollar y avanzar con la planificación encaminada a la consecución  de objetivos y plasmarla en el correspondiente Plan de Gestión anual y presupuesto municipal.

Zuzendaritza taldeak eta baita hiru arloetako koordinazio taldeek landu duten lehen erronka Agintaldi Plana definitzea izan da. Gobernu taldeak teknikariei aurkeztutako planifikazioa oinarri hartuta aipatutako dokumentuan agintaldi bukaera arteko helburu estrategikoak definitu dira. Aldi berean, helburu horietatik eratorritako ekintza zehatzak ere identifikatu dira, arduradun politiko eta teknikoak eta epe luzeko plangintza ekonomiko batean kokatu dira.

El primer reto de planificación acometido en el presente mandato, tanto por el grupo de dirección, como por los grupos de coordinación de los tres ámbitos, ha sido elaborar el Plan de Mandato. Partiendo de la base de la planificación que el equipo de gobierno presentó al personal técnico en dicho documento se han definido los objetivos estratégicos A su vez, se han identificado acciones concretas derivadas de todo lo mencionado, así como responsables políticos y técnicos,  y se han situado en el marco de una planificación económica a largo plazo.

Hala eta guztiz ere, ez da Udalak burutuko duen ororen bilduma huts bat, baizik helburu estrategiko handiak lortzeko eragin handia duten ekintzena soilik. Gainerako helburu eta ekintzek espazio bat aurkitu

Sin embargo, no es una mera recopilación de todo lo que el Ayuntamiento va a realizar, sino exclusivamente de aquellas actuaciones que impactan de manera significativa en el logro de los

ESKU95ed86f6-1a16-498f-8181-287a08eeff33

behar dute dagokien departamentuko zuzendaritza-organoetan kudea ditzaten.

grandes objetivos estratégicos. El resto de objetivos y actuaciones han de encontrar espacio para su gestión en los órganos de dirección departamental que les corresponda.

Agintaldi-plan hau, kudeaketa dokumentua den heinean, erabilgarria da gobernu-taldearentzat, aukera ematen duelako herritarrek babestu zuten hauteskunde-programa gobernu-programa bihurtzeko, bete nahi diren helburuak lortzeko beharrezko ekintzen jarraipena egiteko; ziurgabetasuna gutxitzen du eta erakundearenganako eta herritarrenganako komunikazioa errazten du. Erakundearentzako baliagarritasuna da argitzen duela agintaldirako marko estrategikoa eta errazten duela lehentasunak identifikatzea. Azkenik, herritarrentzat ere erabilgarria da, gardentasuna areagotzen duelako eta aukera ematen duelako udal-gobernuaren estrategia identifikatzeko.

El presente Plan de Mandato, en cuanto documento de gestión, resulta de utilidad para el equipo de gobierno en cuanto que permite transformar el programa electoral que respaldó la ciudadanía en un programa de gobierno, le permite realizar un seguimiento de las acciones necesarias para el logro de los objetivos que se persiguen, reduciendo la incertidumbre y facilita la comunicación tanto hacia la organización como hacia la ciudadanía. La utilidad que presenta para la organización se traduce fundamentalmente en que clarifica el marco estratégico en el que se va a desarrollar el presente mandato y facilita la identificación de prioridades. Por último también es útil para la ciudadanía puesto que aumenta la transparencia y permite identificar la estrategia del gobierno municipal.

Euskadiko Toki Erakundeen Legeak, besteak beste, berariaz aitortzen du toki-erakundeek ahalmena dutela plangintza eta programazioa burutzeko oro har, nahiz eta indarreko legerian aurreikusita dagoen udalen eskumen-sistema osoa Agintaldi Planak biltzen dituen ekintzei eta proiektuei aurre egiteko.

La Ley de Instituciones Locales de Euskadi, entre otras, reconoce entre las potestades de las entidades locales expresamente las de planificación y programación en general, sin perjuicio de todo el sistema competencial municipal previsto en la legislación vigente para poder acometer las acciones y proyectos que recoge el Plan de Mandato.

Idazkari akzidentalak aldeko txostena eman du.

La Secretaria accidental ha emitido informe favorable.

Alkateak Agintaldi Planaren azalpenak jasotzen duen dokumentu bat idatzi du.

La Alcaldesa ha redactado un documento explicativo del Plan de Mandato.

Alkateak egindako erabaki-proposamena, eta Idazkari akzidentalak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo de la Alcaldesa y la conformidad dada por la Secretaria accidental a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako

En ejercicio de las competencias conferidas en virtud

ESKU95ed86f6-1a16-498f-8181-287a08eeff33

eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

**ERABAKI DU**

**Lehenengo.-** 2023-2027 Agintaldi Plana onartzea.

**Bigarren.-** Betetzea Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean publizitate aktiboaren inguruan xedatutakoak, Agintaldi Plana udalaren web-orrian argitaratuta.

**Hirugarren.-** Erabaki honen eta onartutako dokumentuaren berri ematea Udaleko sail eta departamentuei; Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak arloei; Koordinazio Gune Orokorra taldeari eta, bereziki, arduradun politiko eta teknikoei, jakinaren gainean egon daitezen eta bete ditzaten.

**Laugarren.-** Erabaki honen eta onartutako dokumentuaren berri ematea gainerako udalkideei, egoki diren ondorioetarako; horretarako, hurrengo Udalbatzan emango da berri.

de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ACUERDA**

**Primero.-** Aprobar el Plan de Mandato 2023-2027.

**Segundo.-** Dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en lo que se refiere a la publicidad activa publicando el Plan de Mandato en la página web municipal.

**Tercero.-** Poner en conocimiento de las áreas y departamentos municipales, de los ámbitos de Organización, Territorio y Ciudadanía, del grupo denominado Ambito de Coordinación General y especialmente de las y los responsables políticos y técnicos el presente acuerdo y el documento aprobado para su conocimiento y cumplimiento.

**Cuarto.-** Poner en conocimiento del resto de corporativos el presente acuerdo y el documento aprobado a los efectos oportunos dando cuenta del mismo al Pleno del Ayuntamiento en la primera sesión que celebre.

**2. Errenteriako irisgarritasun planaren eguneratzearen onarpena. (2023HPOL0056)**

2003. urtean, Errenteriako Irisgarritasun Plana egin zen, eta dokumentu horren Bide Publikoan jarduteko planak ez zituen bere jarduera-eremuan sartu arrazoi topografikoengatik goiko aldeetan kokatutako udalerriko zenbait eremu, araudian ezarritako gehieneko maldak gainditzen zirelako.

**2. Aprobación de la actualización del plan de accesibilidad de Errenteria. (2023HPOL0056)**

En el año 2003 se elaboró el Plan de Accesibilidad de Errenteria, el plan de actuación en Vía Pública de dicho documento no incluyó en su ámbito de actuación determinados ámbitos del municipio situados en las zonas altas por motivos topográficos, ya que se superaban las pendientes máximas establecidas por la normativa.

ESKU95ed86f6-1a16-498f-8181-287a08eeff33

2011ko apirilaren 20an, "Errenteriako Irisgarritasun Plana zabaltzea" onartu zen, IKERSARE AST, S.L. enpresak idatzia, eta planean goiko aldeak sartu zituen.

Con fecha 20 de abril de 2011 se aprobó la “Ampliación del Plan de Accesibilidad de Errenteria” redactado por la empresa IKERSARE AST, S.L. que incorporó las zonas altas al plan.

Azterlan honek igogailuak ezartzeko plan bat du, eta hainbat kudeaketa-unitate definitzen ditu. Data horretatik aurrera, jarduketak gauzatzen joan dira, esleitutako planaren eta lehentasunen arabera, eta udalaren eskuragarritasun ekonomikoaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzen programaren arabera.

Este estudio cuenta con un Plan de Implantación de Ascensores y define diferentes Unidades de Gestión. Desde dicha fecha, se han ido ejecutando actuaciones de conformidad con el plan y prioridades asignadas y en función de la disponibilidad económica municipal y del programa de subvenciones para mejora de la accesibilidad del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.

Irisgarritasun Plana idatzi zenetik 17 urte igaro dira, eta Irisgarritasun Plana zabaltzea onartu zenetik ia 10 urte igaro dira.Horregatik guztiagatik, indarrean dagoen planaren esparruan lortutako emaitzak ebaluatzeko eta jarduerak, lehentasunen ordena eta horiek gauzatzeko egutegia berriz aztertzeko unea dela uste da.

Por todo ello, y transcurridos 17 años desde la redacción del Plan de Accesibilidad y casi 10 años desde la aprobación de la Ampliación del Plan de Accesibilidad, se considera que es el momento de hacer una evaluación de los resultados obtenidos en el marco del plan vigente y una reconsideración de las actuaciones, del orden de prioridades y del calendario de ejecución de las mismas.

Komenigarritzat jo da, halaber planaren edukia eta planaren zabalpena dokumentu eguneratu bakar batean bateratzea.

También se considera conveniente refundir el contenido del plan y de su ampliación en un único documento actualizado.

I-ingenia enpresak Irisgarritasun Planaren Eguneratzea idatzi zuen.

La empresa i-ingenia redactó la Actualización del Plan de Accesibilidad.

Plana egiteko, herritarrek parte hartzeko proesu bat egin da, bi fasez osatua.

Para la elaboración del plan se ha realizado un proceso de participación ciudadana que consta de dos fases.

Lehenengo fasean, mugikortasun arazoak dituzten kolektiboen eta, oro har, biztanleen iritzia ezagutu nahi zen. Horretarako, planaren testuan jasota dauden hainbat ekintza gauzatu dira.

La primera una fase en la que se quería conocer la opinión tanto de colectivos con problemas de movilidad como de la población general. Para ello se han llevado a cabo diferentes acciones que se recogen en el texto del plan.

Behin plana idatzi zenean, herritarrek parte hartzeko bigarren fasea egin zen, eta testua **jendaurrean jarri**

Redactado el plan, y en la segunda fase de participación ciudadana, el texto se somete a

ESKU95ed86f6-1a16-498f-8181-287a08eeff33

zen 2022ko irailaren 15era arte.

Epe horretan, irisgarritasuna hobetzeko ekarpen eta idazki hauek jaso ziren:

1. Orotarik Gazte Jolas Elkartearen idazkia, 14429 erregistro-zenbakia.

2. Alabergako Auzo Elkartearen idazkia, 17195 erregistro-zenbakia.

3. Luis Mariano plazako bizilagunaren ekarpenen mezua, 2022/09/12koa.

4. Lousada kaleko bizilagunaren ekarpenen mezua, 2022ko irailaren 15ekoa.

5. Jarduera berri bat ere aztertu da. Igantzin igogailua jartzeko.

Ekarpenei dagokienez, horiek aztertu ziren, eta, 2023ko martxoaren 9an, "i-ingenia" enpresak "Irisgarritasun Planaren Eguneratzea" izeneko **behin betiko dokumentua** aurkeztu zuen udaletxean, aipatutako aldaketak jasotzen dituena.

Behar den **txosten teknikoa egin** da, eta haren eguneratzearen **aldeko** txostena eman da.

Behar den **txosten juridikoa** egin da, eta haren eguneratzearen **aldeko** txostena eman da.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO abenduaren 4ko 20/1997 Legeak honako hau dio 13. artikuluan: “Lehendik dauden hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen, garraioen eta informazio- eta komunikazio-

**exposición pública** hasta el 15 de septiembre de 2022

En dicho plazo se recibieron las siguientes aportaciones y escritos relacionados con las mejoras de accesibilidad:

1. Escrito de Orotarik, Asociación Recreativa Juvenil, nº registro 14429

2. Escrito de la Asociación de Vecinos de Alaberga, nº de registro 17195.

3. Mensaje de aportaciones de vecino de la Plaza Luis Mariano, de 12/09/2022.

4. Mensaje de aportaciones de vecino de Lousada kalea, de 15 de septiembre de 2022.

5. También se ha estudiado una nueva actuación de implantación de ascensor en Igantzi.

En relación a las aportaciones, se analizaron las mismas y Con fecha **9 de marzo de 2023**, la empresa "i-ingenia" presentó en el Ayuntamiento el **documento definitivo** "Actualización del Plan de Accesibilidad" que recoge las modificaciones mencionadas.

Se ha realizado el correspondiente **informe técnico** donde se informa **favorablemente** la Actualización del mismo.

Se ha realizado el correspondiente **informe jurídico** donde se informa **favorablemente** la Actualización el mismo.

**FUNDAMENTOS JURÍDICOS**

La Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD, en su artículo 13, dice que “Para garantizar y promover la accesibilidad de los entornos urbanos, espacios

ESKU95ed86f6-1a16-498f-8181-287a08eeff33

sistemen irisgarritasuna bermatzeko eta sustatzeko, titulartasun, erabilera edo zerbitzu publikokoak, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta gainerako erakunde publikoek lau urteko programak egingo dituzte irisgarritasuna sustatzeko.”

públicos, edificios, transportes y sistemas de información y comunicación ya existentes, de titularidad, uso o servicio público, el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales, los Ayuntamientos y demás entidades públicas elaborarán programas cuadrienales para la promoción de la accesibilidad.”

Sektoreko araudian Irisgarritasun Plana onartzeko berariazko prozedurarik ez dagoenez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa bete beharko da.

No existiendo procedimiento específico para la aprobación del Plan de Accesibilidad en la normativa sectorial, se habrá de seguir lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Aginduzkoa izan ez arren, herritarrek parte hartzeko prozesu bat egin da. Fase horiek jendaurreko erakustaldi batekin amaitu ziren, eta bertan hainbat ekarpen eta iritzi jaso ziren. Ekarpen eta iritzi horiek aztertu egin ziren, txosten honetan eta Planean bertan jasotzen diren bezala. Prozesu horren ondoren, **2023ko martxoaren 9an,** "i-ingenia" enpresak "Irisgarritasun Plana eguneratzea" **behin betiko** dokumentua aurkeztu zuen Udalean, aipatutako aldaketak jasotzen dituena.

A pesar de no ser preceptivo, se ha realizado un proceso de participación ciudadana con diferentes fases, que terminaron con un periodo de exposición pública, donde se recibieron diferentes aportaciones y opiniones, las cuales han sido estudiadas tal y como se recoge en el presente informe, y en el propio plan donde se detalla el proceso de participación. Tras dicho proceso, con fecha **9 de marzo de 2023**, la empresa "i-ingenia" presentó en el Ayuntamiento el **documento definitivo** "Actualización del Plan de Accesibilidad" que recoge las modificaciones mencionadas.

**Egindako** txosten **tekniko eta juridikoak** ikusi dira.

Vistos los informes **técnico y jurídico elaborados** .

Ikusirik Hirigintzako zinegotzi delegatuaren erabaki proposamena eta Hirigintzako aholkulari juridikoak espedientean dagoen erabaki proposamenari emandako adostasuna.

Vista la propuesta de acuerdo del concejal delegado de Urbanismo y la conformidad dada por la asesora jurídica de Urbanismo a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Araubide eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluaren 1. ataleko “o” letran eta 2023/06/19ko Alkatetzaren 2023/1603 Dekretuan xedatutakoa **kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarra da eskudun.**

Considerando lo dispuesto en el artículo 21 apartado 1 letra “o” de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de régimen y local y en el Decreto de Alcaldía 2023/1603 del 19/06/2023, por el que se delegan determinadas compentencias, será competente la **Junta de Gobierno Local**.

Tokiko Gobrnu Batzarrak, aho batez,

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ESKU95ed86f6-1a16-498f-8181-287a08eeff33

**ERABAKI DU**

1.-"I-ingenia" enpresak 2023ko martxoaren 9an egindako **"Irisgarritasun Plana eguneratzea" behin betiko dokumentua** behin betiko **onartzea**.

**2**.- Behin betiko onespena emateko erabakiaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean **argitaratzea**

3.- Interesatu gisa iradokizunak eta ekarpenak egin dituzten pertsona edo erakundeei behin betiko testua **jakinaraztea.**

4.- Errenteriako Udaleko Hiri Mantentze Sailari behin betiko testua **jakinaraztea**.

5.- Errenteriako Udaleko Udaltzaingoari behin betiko testua **jakinaraztea**.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:37 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2023ko azaroaren 28a

**ACUERDA**

**1.- Aprobar** definitivamente el **documento definitivo "Actualización del Plan de Accesibilidad"** de fecha **9 de marzo de 2023,** realizado por la empresa "i-ingenia”.

**2**.- **Publicar** el texto íntegro del acuerdo de aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa

**3**.- **Notificar** a las personas o entidades que han aportado sugerencias y aportaciones como interesados, el texto definitivo.

4.- **Notificar** al departamento de Mantenimiento Urbano del Ayuntamiento de Errentería el texto definitivo.

5.- **Notificar** al departamento de Policía Municipal del Ayuntamiento de Errentería el texto definitivo.

Y sin más asuntos de los que tratar, la presidenta levanta la sesión, siendo las 09:37 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La secretaria general.

Errenteria, 28 de noviembre de 2023

Idazkari akzidentala / Secretaria Acctl.

Begoña Bueno Barranco

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU95ed86f6-1a16-498f-8181-287a08eeff33**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710*
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2023IGOB0020-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |
| --- | --- |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: BEGOÑA BUENO BARRANCO - 34104036G
Idazkari Orokorra
Data / Fecha: 2023/11/28 11:23:27